

Asmo berri

EGAN-ek, BOLETIN-aren eraskin onek, aurki izango ditu zortzi urte. Ia zortzi urte auetan, euskeraz eta erderaz aurrenik, euskera utsez gero, amaika lan agertu dira bere orrialdeetan, zenbait —lasai esan dezakegu— ez nolanaikoak.

Eraberritu-naiean dabil, diogunez. Guipuzkoa'ko Diputazioak aйн asmo txalogarriz Donostia'n sorturik daukan "Julio de Urkixo" Euskal-Filologi-Muintegiak artu du bere gain orain aldizkari au antolatzea, gure mintzabide biziaren alde lan egiteko, agindua daukan bezala.

Eginbide au, zuzen edo oker, gu iruron bizkar gelditu da eta azaldu nai genizuke, irakurle, zer ustetan geran. Maizago argitara eman nai genduke EGAN: maizago, ugariago eta ornituago. Eta biziekin ari geran ezkeru eta darabilgun izkuntza ere izkuntza bizia den ezkeru, gaiak ere biziak, gaurkoak, nai genituzke. Sarriegi gertatzen baita azken-aldi onetan euskerak, olakoak erabilliaz bere trebetasuna erakutsi bearrean, bere eritasun eta makurrak dituela beti aotan, guziok ezagutzen ditugun zenbait pertsona mintsuk bezala. Eta beldur gera ez ote den ori biderik egokiena izango maiteen dutenak ere aspererazteko.

Kalera begira ari nai dugu, baserrira begira baiño geiago. Eta, kalean, gure gisako ikasi edo erdi-ikasientzat. Zenbaitek uste izango du, bear bada, ori baiño eginkizun bearragorik badagoela. Baliteke ala izatea, eztugu ukatzen. Eztagokigu, ordea, guri erabakitzea zein den bearren. Gere saillean ari nai dugu, ortarako egokiera eskura zai-gun ezkeru, bestetan ari duenari eragozpenik jarri gabe ez ezik, aal dugun pixkarekin lagunduaz. Oiñarriak leenago dira tellatua baiño,

egia, baiña tellaturik gabe etxe-barrena ta zimenduak berak ere usteldu egiten dira azkenean.

Askoren bearrean gerala badakigu. Indarrez kaxkar gera, eztugu iñork esan bearrik, eta etorritz urri. Eskerrik beroenaz artuko ditugu beraz iñork bidali nai dizkigun idaz-lanak. Argitaratzeko muga, aldizkariaren neurriaz kanpora, gaiak bakarrik ipiñiko du. Gaiñera-koan berdin zaigu izkera emengoa edo angoa izatea, euskera —izenez eta izanez euskera— baldinbada. Eta batez ere irakurleen bearrean gaudela, euskaldun guzieren bearrean alegia, esan bearrik ba aal dago?

Ar itzazu, irakurle, EGAN-en bigarren aldi onen asieran, gure eskerrak eta gure biotzeko agurra. Eta agur berezi bat zuei, emen eta an lanean ari zeraten euskal-aldizkari eta idazleei.

A. ARRUE, A. IRIGARAI, L. MITXELENA.



HEUSKALDUN DEN GIZON OROK ALTXA BEZA BURUYAI

Detxepare